



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?”

2021eko urriaren 10a  
Urteko 28. igandea (B)

### Markos 10, 17-30.

Bidean abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: -Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko? Jesusek erantzun zion: -Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: *Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, ohoratu aitamak.* Hark, orduan: -Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia. Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: -Gauza bat falta zaizu bakarrik: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri. Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta atsekabez joan, ondasun handien jabe baitzen. Inguruan begiratu, Jesusek esan zien bere ikasleei: -Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan! Harriturik utzi zituen ikasleak esaldi honek. Baina Jesusek berriro ere: -Ene semeok, zaila da benetan Jainkoaren erreinuan sartzea. Orratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino. Ikasleek, gero eta nahasiago, honela zioten beren artean: -Nor salba daiteke, orduan? Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: -Gizakientzat bai ezinezko, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak. Orduan, Pedrok esan zion Jesusi: -Hara, guk dena utzi dugu zuri jarraitzeko. Jesusek erantzun: -Benetan diotsuet: Niregatik eta berrionagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurra uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur jasoko du, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia.

“Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: Gauza bat falta zaizu bakarrik: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri.”

## GAUZA BAT DUGU FALTA

Jose Antonio Pagola

Pasadizoari aparteko bizitasuna eman dio kontalariak. Jerusalemerako bidea hartu du Jesusek, baina leku hartatik urrundu baino lehen, ezezagun bat iritsi zaio «*korrika*» eta «*belauniko jarri aurrean*», bertan eusteko. Jesusen premia gorria du.

Ez da sendatu beharra duen gaixo bat. Maisuagandik argia lortu nahi du bere bizitza norabidetzeko. «*Zer egin behar dut betiko bizia ondare izateko?*» Ez da arazo teoriko hutsa, baizik existentziala. Ez da mintzo maila orokorrean; berak zer egin behar duen jakin nahi du.

Beste ezer baino lehen, Jesusek hau gogorarazi dio: «*ez da inor on Jainkoa baizik*». Zer «*egin*» planteatu aurretik, beste inor ez bezalako Jainko ON baten aurrean bizi garela izan behar dugu gogoan: haren ontasun ezin ulertuan estekatu behar dugu geure bizitza. Ondoren, Jainko On horren «*aginduak*» gogorarazi dizkio Jesusek. Bibli tradizioaren arabera, horixe da betiko bizirako bidea.

Miresgarria da gizon haren erantzuna. Txikitandik bete du hori guztia, baina amets handiago bat sumatu du bere baitan. Beste zerbaiten bila dabil. «*Jesus begira-begira jarri zaio samurkiro*». Begiratu horrek, besterik gabe, gizon harekin izan nahi duen harreman pertsonala adierazten du

Ondo ulertu du Jesusek haren ezin ase: «*gauza bat duzu falta*». Betiko bizia «*lortzeko*» agindua «*betetzearen*» logika horri jarraituz, bekaturik gabe bizi bada ere, ez da geldituko guztiz ase. Gizakiaren barnean bada irrika sakonago bat.

Horregatik, bere bizitza logika berri baten arabera norabidetzerako gonbidatu du Jesusek. Lehenengo gauza, bere ondasunei atxikirik ez bizitzea da («*saldu daukazuna*»). Bigarrena, pobreei laguntzera gonbidatu du («*eman haiei zeure dirua*»). Azkenik, «*zatoz eta jarraitu niri*». Biek elkarrekin egin ahal izango dute bidea Jainkoaren erreinurantz.

Gizonak, ordea, altxatu eta alde egin du Jesusengandik. Ahaztu egin du Jesusen begiratuaren xarma, eta triste joan da. Badaki ezin gozatu izango duela inoiz ere Jesusi jarraitzen diotenen poza eta askatasuna. Markosek argitu digu, ezen «*oso aberatsa zela*».

Ez ote hori bera lurralde aberatsetako kristau aseon esperientzia? Ez ote gara bizi ongizate materialak harrapatuak? Ez ote zaio falta gure erlijioari pobreekiko maitasun bizia? Ez ote zaigu falta Jesusen jarraitzaileen poza eta askatasuna?